


Noaqua!!

H A M A B O S K A R I A

2000ko ekainaren 26 - V. urtea

Usurbil, 91. zenbakia




Haimar Zubeldia Euskal
Bizikletan onena

Aizpurua



*Zure mahaia ondo
hornitu nahi baduzu
gurean duzu aukera!*

Telesforo Ardoak



Kale Nagusia, 25 Telf. 943 36 12 20

Egin zaitez

Noauako bazkide

Merkeago afaldu nahi baduzu, edo eta erosketak merkeago egin nahi badituzu hona hemen zure aukera

%10eko
beherapena

Aldatz kirolenda

Mahuka

jantzidenda

Pauma Haur

jantziak

Truke jantzidenda

Usurbil optika

denda

Intza ileapaindegia

2.500 pezetatik
gorako otordua
eginez gero
%10eko
deskontua


Antxeta jatetxea

Patri jatetxea

Zumeta jatetxea



TXIMINIA ALTZARIAK



ALTZARIAK AUKERAN

1.000 metroko erakusketa- Prezio harrigarriak

Punta-puntako markak %50ean: Altzari-trinko, lastaira eta
lastaira-azpikoen aukera haundia

Sofa eta besaulkiak, logelak, aulkiak, mahaia

Ehundaka altzairu %50ean

Mailatu txikiekin eta gabekoak

Osinalde poligonoa

Tel.: 943 37 09 66

Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Leiretxu!** Ekainaren 7an bi urte beteko dituzu. Ondo pasa mari tomasa! Muxu asko eta besarkada handi handia etxekoan partez.



Alazne **Odriozola Rojo.** Zorionak eta muxu haundi bana zure guraso, aito-amon eta osaba-izeben partez. Espero dugu ondo pasako zenuela maiatzaren 21ean.



Zorionak **Oihana!** Ekainaren 2an sei urte betetzen ditu gure printzesak. Ondo-ondo pasa eta muxu haundi bat etxekoan partetik.



Isidra **Navarro.** Etxetik ehundaka kilometrotara dispersatuta, beste urte batez Espainiako kartzeletatik agur goxo bat bidaltzen dizut. Zorionak! Maite zaituen semea, Ramon



Artaldeetik kanpo artzainik gabe habil, txikita! Ea ekainaren 4an artaldea osatzen dunan eta denok batera hire moduko artzaina bilatzen dinagun. Urte askotarako **Agurtzane.**



Zorionak **Nagore!** Ekainaren 1ean zure urtebetetze eguna izan zenez muxu haundi bat eta urteaskoan. Etxekoak.



Zorionak bikote! **Maiale-nek** maiatzaren ospakizun ugari izan zituen: urtebetetzea eta jaunartzea. **Andonik,** berriz, ekainaren 3an urtea estrenainatuko du. Muxu haundi bana etxekoan partez.



Zorionak **Amaia!** Pasa den maiatzaren 24an zure urtebetetze eguna izan zen, baina ez gara zutaz ahazten. Ondo zaudelakoan muxu asko eta ea laister hemendik azaltzen zaren. Zure familia.



Zorionak Edertu-ko ilea-paintzaile xaladarenari. Muxu haundi bat. Maitasunez... Ramon.

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarfe hau erabili dezakete. Ekarri jarri beharreko testua eta argazkia. Hurrengo alea: ekainaren 16an Ekartzeko azken eguna: ekainaren 9an

Hildakoak



2000-5-21
Josefa Alkorta
Larburu
75 urte
Aginaga

EUSKO TRENBIDEAKEN UDABERRIKO AUTOBUS ORDUTEGIA

ASTEGUNETAN

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
07.40	08.05	08.25	06.45	07.05	07.30
08.00	08.25	08.35**	07.15	07.35	08.00
08.40	09.05	09.25	07.45	08.05	08.30
09.00	09.30	09.40*	08.15	08.35	09.00
09.40	10.05	10.25	08.45	09.05	09.30
10.40	11.05	11.25	09.20**	09.30	10.00
11.40	12.05	12.25	09.45	10.05	10.30
12.00	12.25	12.35**	10.20*	10.30	11.00
12.40	13.05	13.25	10.45	11.05	11.30
13.00	13.30	13.40*	11.45	12.05	12.30
13.40	14.05	14.25	12.45	13.05	13.30
14.00	14.30	14.40**	13.20**	13.30	13.55
14.40	15.05	15.25	13.45	14.05	14.30
15.00	15.25	15.40*	14.20*	14.30	15.00
15.40	16.05	16.25	14.45	15.05	15.30
16.40	17.05	17.25	15.20**	15.30	15.55
17.40	18.05	18.25	15.45	16.05	16.30
18.00	18.30	18.40*	16.20**	16.30	17.00
18.40	19.05	19.25	16.45	17.05	17.30
19.00	19.25	19.35**	17.45	18.05	18.30
19.40	20.05	20.25	18.45	19.05	19.30
20.00	20.30	20.40*	19.20*	19.30	20.00
21.00	21.25	21.45	19.45	20.05	20.30
22.00	22.30	22.50	21.15	21.35	22.00

* Orioraino ** Aiaraino

* Oriotik ** Aiatik

ASTEBURUTAN

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
07.30	07.55	08.15	06.45	07.05	07.30
08.30	08.55	09.15	07.45	08.05	08.30
09.30	09.55	10.15	08.45	09.05	09.30
10.30	10.55	11.15	09.45	10.05	10.30
11.30	11.55	12.15	10.45	11.05	11.30
12.30	12.55	13.15	11.45	12.05	12.30
13.30	13.55	14.15	12.45	13.05	13.30
14.30	14.55	15.15	13.45	14.05	14.30
15.30	15.55	16.15	14.45	15.05	15.30
16.30	16.55	17.15	15.45	16.05	16.30
17.30	17.55	18.15	16.45	17.05	17.30
18.30	18.55	18.15	17.45	18.05	18.30
19.30	19.55	19.15	18.45	19.05	19.30
20.30	20.55	20.15	19.45	20.05	20.30
21.30	21.55	21.15	20.45	21.05	21.30
22.30	22.55	23.15	21.45	22.05	22.30

PATRI
JATETXEA
Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)



Urtinea Elkarte

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55

Kale Nagusia, 9 USURBIL
Tlf. 943 37 33 48
943 37 09 13

LABE-GOXO
Gintxategia Gogotegia

Zer irizten?

Usurbilgo Lizarra-txikia



Argitaratzailea

Noaua! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21
E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net
Web orria:
http://www.topagunea.com/noaua/

Kazetarien koordinatzailea

Josu Aranberri

Kazetariak

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea

Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manferola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Manuel Begiristain, Eukene Kamino, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbieita, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez.

Erredakzio Kontseilua:

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Gari-koitx Udabe, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta.

Maketazioa eta diseinua

Olatz Goenaga eta Ander Perez

Dokumentazioa

Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua, Leire Mujika, Leire Unanue eta Nagore Gonzalez

Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketa

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

Azala:

Haimar Zubeldia Euskal Bizikletako podium-ean



Gure herri hau politikagintzan pasatzen ari den momentu zail hauetan, eta osatu genuen talde txiki honen urtebeteko lana dela eta, Euskal Herrirako hain garrantzitsua suertatu zen hitzarmen haren aitzakiaz, hona hemen proposatzen dizuegun saioa:

Mintegi sail berezia

Hau da, hiru hitzaldi jator eta sendo elkarrizketarako

1- ERREPASO HISTORIKO-POLITIKOA. Garaiei erreferentzia bat markatu nahian karlistadatik hona aztertuko da. Ekainaren 7an arratsaldeko 19.30eta Udarregi ikastolan. Hizlaria: Josu Txueka (Euskal Herriko historia irakaslea EHU).

2-KONPONBIDEAK: ELKARRIZKETA, NEGOZIAZIOA, nola joratu bidea baldintza egokiak eman daitezten? Zer gaiei heldu konponketa benetakoa izan dadin? Ekainaren 14an arratsaldeko 19.30eta Udarregi ikastolan. Hizlaria: Xabier Oleaga (kazetaria)

3- BURUJABETZA POLITIKOA, ulermoldeak, Autodeterminazio eskubidea, beste herrietako adibideak, etab. Ekainaren 21ean arratsaldeko 19.30etan Udarregi ikastolan. Hizlaria: Mario Zubiaga (Zientzia Politikoen irakaslea EHU).

Guzti hau posible izango da zuen partehartzearekin. Izan ere, planteatu dugun eran mintegiak itxiak izango dira talde kopuruari dagokionez (25 lagun), eta hiru egunetan pertsona berdinekin jorratuko dira gaiak. Interesaturik bazaude izena eman ezazu Noaua! elkartean. Telf. 943-360321



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria




Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak




Euskal Herrira!



Juantxo Gorostidi Etxeberria

Lehengusuek afizioa sartu eta ordutik, bizitza bi gurpilen gainean iragan du. "Bigotes" deitzen zioten lagunek, izan ere bera izan baitzen lehenengo txirringulari biboteduna.



Txirringularitzan urte asko egin dituzu. Noiz hasi zinen?

15 urterekin hasi nintzen. Lehengusuek afizioa sartu zidaten eta 35 urterekin utzi nuen. Oso gazte hasi nintzen.

Beti laisterketetan ibili al zara?

Bai, beti. Igandero-igandero edukitzen genuen laisterketaren bat. Ziklokrosa eta errepidean ibiltzen nintzen eta bi modalitateetan ibilita, laisterketen kopurua bikoiztu egiten zen.

Zer ibiltzen zinen gehiago ziklokrosean ala errepidean?

Ni ziklokrosean ona nintzen, punta-puntan ibilia naiz. Gainera, errepidetako laisterketak hiru edo lau ordutakoak izaten ziren eta gureak ordu bete ingurukoak. Horrek entrenamendu gutxiago eskatzen zuen. Egia esan, biak ezberdinak dira.

Talde askotan ibili al zinen?

Bai. Hasieratik talde desberdinetan ibili nintzen. Talde askotatik pasa naiz, baina azkena Saizar izan zen.

Txapelketa edo karrera ugaritan parte hartu duzu orduan.

Espainiako txapelketan hemezortzi aldiz izan naiz. Hiru irabazi nituen, eta bederatzi aldiz bigarren gelditu nintzen, beti ere bi mailatan: afizionatu eta profesionaletan. Munduko txapelketan ere hamabi aldiz parte hartu dut eta behin zortzigarren postua lortu nuen.

Entrenatzaile modura ere ibili zara gerora, ezta?

Usurbilen Txirringularitza Eskola sortu genuen Juan Jose Arrospidek, Inaxio Furundarenak eta hirurok. Federazioetan delegatu bezala ere ibili naiz, bai Gipuzkoan eta baita Euskadi mailan ere. Horrez gain, ziklokroseko hautatzailea ere izan nintzen garai batean.

Orain loturaren bat ba al daukazu txirringularitzarekin?

Azken zortzi urteotan utzita daukat, jarraitzen dut baina ez daukat kargurik. Gauzak asko aldatu dira eta gure belaunaldia alde batera gelditu da ja.

Usurbilen lehen txirringularitzak bazuen bere lekutxo; laisterketak antolatzen zenituzten... Esan al daiteke lehen zuen indar hori galdu egin dela?

Bai, niretzat indarra galdu du txirringularitza Usurbilen. Lehen gazte gehiago ikusten nituen, baina orain ez dut jende gehiegi ikusten.

Oso albiste ona izango zen zuretzako Haimar Zubeldiak Euskal Bizikleta irabazi duela jakitea.

Bai. Oso ona. Ilusio handia egin zidan.

Txirringularitzara itzultzeko asmorik bai?

Egia esan, ez dut inoiz tratu hori galdu. Edozein lekutara joanda ere, beti ezagunen bat topatzen dut... Kontaktu hori ez dut inoiz galdu.

XABIER EDARITEGIA

Etor zaitez,
eta dasta itzazu
Goierriko produktuak

X Idiazabal gazta
X Beasaingo odolkiak...



MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen
modako arropa guztia hemen aurkituko duzu

Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06

ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



ESTRELLA
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak
zure zerbitzurako

Zubikarrena, 10
Tlf. 943 37 18 07- Fax.: 943 37 63 41

TXOKOALDE

Zubiaren kontuak berriz

Olatz Goenaga



Aurreko batean Txokoaldeko zubia zein gaizki zegoen idatzi nuen. Ba, badirudi zubia konpontzeko asmoa dutela eta gainera laister hasiko direla.

Orain dela hiru bat urte, zubiaren konponketa baten premiaz konturatu ziren udale-txekoak. Zubi azpiko burdinak bistan eta herdoil-
duak zeuden eta kamioi asko ibiltzen zen atzera eta aurrera. Kamioi horietatik % 90 Andatza-ko enborrak garraiatzen zituztenak ziren. Udaletxeak Diputazio-arengana jo zuen orduan, hauek baitziren zubia gehien apurtzen zutenak. Baina garai hartako Diputazioak konponketa egiteari ezezkoa eman zion.



Garai hartan Udalak ez zuen zubia konpontzeko dirurik, beste lan batzuk lehentasuna baitzuten. Hala, 15 tona baino gehiagoko kamioiei zubia zeharkatzea galerazteko trafiko seinaleak jarri zituen.

Oraingo agintaldi honetan, Udalak berriz Diputazioara jo du eta honek baiezkoa eman dio

konponketa egitearen eskaerari. Dagoeneko proiektua onartua dago eta lana egingo duen enpresa ere aukeratu dute. Beraz, badirudi laister hasiko direla zubia berritu eta konpontzen.

Askok zubia ezingo dugula zeharkatu eta

San Estebandik bueltan ibili beharko dugula pentsatuko duzue, baina badirudi zubia ixteko asmorik ez dutela, agian egunen batean edo bestean, baina ez konponketak iraugo duen lau hilabetetan. Zubitik zintzilika lan egiteko asmoa omen dute. Bertan bizi garenontzat hobe izango da hala.

KALEBERRI

Txekiarren musikaz gozaten

Iñaki Agirresarobe



Hogei ordu luzez bidaiari, musika garraio, musika barruan, zainetan zekarkiten maiatzaren 19an Udarregi ikastolan antolaturik zegoen jaialdian parte hartu ahal izateko. Umore onez, grinez beterik, aretoa girotzeko gogoz eta ilusioz. Gaueko 22:45etan, iragarri baino ordu laurden gerago hasi zen kontzertua. Lehendabizi **Mikel Artola eta Iker Muguruza** txalaparta jo zuten eta, behin euskal musika tresnez giroturik aurkitu zenean, **Chec-homor** txekiar musika taldea azaldu zen: bi kitarjole, bateria-jole bat, eskusoinujole bat eta bibolinjole bat.

Jarritako aulkien erdiak baino gutxiago zeuden beterik (hiru-

rogei bat), eta horien erdiak herritarrak ez zirenez beteak. Giro hotza izateko aurrealdintza izan zitekeen, baina beraiek alaituriko doinuez entzulegoa berehala ohartu zen musika bizia zela, ongi landua eta barruraino sartzen zela, sentimenduak agerian utziz.

Bildutakoek ordu eta laurdenez gozatu zuten eta txalo zaparrada handiak eskaturik, taldeak ezin izan zuen bi abesti gehiago kantatu gabe saioa amaitu. Azkenik, bildutakoak ez ziren etorri izanaz damutu, honelako aukerak aprobeixatu egin behar baitira.

Bestalde, Udarregi zaharreko aretoan **euskal baseritarren jantzi erakusketa** ikusgai egon

da maiatzaren 20. 21. 27 eta 28an. Joan den mendean gure aiton-amonek janzkerari zentzua eman bazioten ere, gaur egun, janzkera hau egun zehatzetan bakarrik erabiltzen da eta batzutan oso narrats. Beraz, antolatzaileen asmoa altxor hau ez gaitzea eta izan duen duintasuna mantentzea izan da.

Azkenik, maiatzaren azken astean **presoeekiko elkartasuna** adierazteko hainbat ekitaldi izan dira herrian. Azpimarratzekoa, hilaren 24an zuzenean herritik bertatik eginiko irrat-saioa. Bertan, herriko hainbat presok telefonoz hitz egin zuten eta hunkigarria izan zen hauen ahotsa berriz ere entzutea.

KALEZAR

Urko Manterola



Txan magoa eguzkiari aurre eginez

Udara gerturaten ari den einean, ekitaldiak gero eta gehiago antolatzen direla nabarmena da. Maiatzaren 27an "Plis-plas txalo ta jolas" kultur ekitaldiaren barruan Txan magoa izan genuen herriko plazan.

Eguraldi eguzkitsua izan genuen. Eguzkiak gogor jotzen zuen eta itzalpean egotea zaila zenez, ume bat baino gehiago buruko minarekin itzuli zen etxera.

Arratsaldeko 17.30etan hasi zen ekitaldia. Ume ugari bildu zen auzoko plazan, eta gurasoek ere ederki pasa zuten umeen aitzakian. Hori bai, magoa ikusteko nahikoa lan izan zuten batzuk, gure eskultu-

ra zoragarri hori, beti bezala, erdian baikenuen.

Ordubetean txundituta utzi zituen magoak han bildu ziren guztiak eta ondoren, txokolatea eta bizkotxoak jateko aukera izan zuten denek. Esan beharra dago Kalezarko jai batzordearen laguntzaz aurre-eraman zela ekitaldi hau.

Beste kontu batekin bukatu beharko dut ale honetako kronika hau. Aurreko alean Ainarak San Juanetako egitarauaren berri eman zuen. Hala ere, zenbait xehe-

tasun ez ziren azaldu. Jendea arduratuta omen dago ekainaren 17an, larunbatean, gauean ezer ez dagoela eta. Baina hori ez da horrela, izan ere Alaitz eta Maider eta Suan Blai taldeak izango baititugu auzoko plazan.



ATXEGALDE

Enarak eta haien habiak

Maria Jesus Urbieto



Udaberria etorri zaigu eta horrekin batera, urtero bezala, gure auzoa enara habiz bete da. Gure teiltape-tan enara ugari ikus ditzakegu, auzoan barrena joan eta etorri hor ibiltzen dira janari bila. Beren mokoak garraiolari bihurtzen dira eta beren zirinak arrastoa uzten dute auzoko bideetan.

Horma txoriak ere azaldu dira gure leiho inguruetan. Ogi pixka bat eskainiz gero, pozik hurbiltzen dira gure eskuetara zein balkoi-tako barandetara.

Nonbait gustokoa dute hauek ere gure auzoa, izan

ere, urte sasoi honetan txoriak beren kantu eta doinuak oparitzera baitzaizkigu.

Udaberria ateraino hurbildu zaigu bisitari hauei esker eta gu, pozik, mendian biziko bagina bezala. Askotan, balkoira irten, begiak itxi eta txorien kantua entzunez, ezin asma dezakezu non zauden.

Mendi aldera begiratu gero, berriz, bada go zer ikusirik, hango edertasuna! Mota guztietako zuhaitz, belar eta loreak ikus ditzake-

gu. Kukuaren kantua ere erraz somatzen da garai honetan. Izan ere udaberriak bere-berea du aparteko edertasuna eta kolorea.



SANTUENEA

Garbilekua

Isaak Muñoz



Oraingo honetan ere, azken aldi honetan nire txoko honetan egin ohi ditudan espedizio horietako baten berri emango dizuet.

Auzotik buelta bat eman ondoren, *Ermotei* baserrian izan zen erropa garbitzeko latsagia edo garbilekua ikusi nuen eta haruntz joatea erabaki nuen bapatean. Egia esan ikaragarritzko pena eman zidan leku polita izandako hura ikusi nuenean, izan ere, orain dela urte batzuk izandako uholdeek, guztiz estali zuten garai batean garbilekua izandakoa. Orain guztia harriz, lurrez eta sasiz josia dago.

Menditik datozen urek eta altzondokoek, bat egiten dute leku honetan. Baina lehen garbilekura erortzen ziren urak, orain honen gainetik pasatzen dira. Nork esango luke garai batean leku horretan garbileku bat egon zela!

Amak esan zidanez, orain dela urte batzuk auzotarrak erropa garbitzera latsagi honetara joaten ziren, eta batzuk, baita bainatzera ere. Han orduak gustora pasatzen zituzten, gaur egun, berriz, ia inor ez da inguru horietara joaten.

Uholdeak gertatu aurretik, jende asko joaten zen hara

kotxea garbitzera. Egia esan, honek mesede baino kalte gehiago egiten zion garbilekuari, garbikarien ontziak eta zikinkeru ugari pilatzen baitzen bertan. Garbilekua baino zikin lekua zen hura. Orain, berriz, ezinezkoa da garbilekura kotxez iristea, bidea sasiz betea baitago eta bidea galtzen ari delako.

Egia esan pena da orain dela urte batzuk garbilekua izandakoa hain egoera txarrean ikustea. Toki garrantzitsua izan zen auzotarrentzat eta zerbait egin beharko litzateke txukun antzera mantentzeko.

URDAIAGA

Aterpe berria

Joseba Zubeldia



Urte asko pasa da autobus geltokian aterpe bat eskatzen hasi ginenetik. Izan ere, orain arte Udarregi ikastolara joan diren auzo honetako haurrek ez baitute inolako aterperik izan.

Autobus geltokia sendategira doan bidegurutzean izan da beti eta euria egiten zuen bakoitzean gurasoek kotxez inguratu eta autobusa etorri zain egon behar zuten umeak ez zitezen busti. Toki horretan, aterki eta guzti zaila baita ez bustitzea.


Hemendik aurrera, ordea, ikastolara doazen dozena bat

umeez geltoki berria izango dute eta toki berrian gainera. Aterpe berria, ermitara edo Txokoaldera joateko aukera ematen duen bidegurutzean egiten ari dira.

Gustora egongo dira bai ikasleak eta baita gurasoak ere, autobusa etorri arteko bost edo hamar minutu horiek lasaitasunez igartzeko aukera izango baitute hemendik aurrera.

Ikastolara joatea hain gustuko ez duenari, berdin zaio non itxaron behar duen. Baten bat haserre-

tu ere egongo zait ikastolara joateko "lasaitasuna" ez duela behar esanaz. Agian gurasoak gustora egongo dira zera pentsatuz: txiki batzuei falta zitzaien ikastolarako afizioa parada berriak emango ote



AGINAGA

Benidorm-etik sari eta guzti

Iratxe Begiristain



Txorien kantuak, loreen usain ederra, eguraldi ederak... udaberriari gaudela. Udaberriarekin batera umore ona dator, eta batera eta bestera ibiltzeko gogoak. Izan ere, paisaia oso politak ikusi daitezke, eta urrutira joan gabe gainera.

Batzuk, aldiz, udaberria sarztearekin batera baztarrak ikusten ibiliak dira batzuk, eta ez hemen inguruan gainera. Bada ja hirugarren urtea 10-12ko taldetxoak osatu eta Benidorm aldera joaten direla. Beti leku berdinerak, bai, baina naiz eta bertan hotela hartu, gero inguruko bazterrak ikusten ibiltzen

dira gero. Aurten, beste zenbaiten artean, Altea herria ezagutu dute.

Jubilatuak kirolak egiten ez dutela? ba hauek inongo "karretilarik"

hartu gabe han igo zituzten 298 eskilara Altea elizara igo ahal izateko. Leku polita izanik bista ederrak dituela esan digute, eskerrak...

Aurten, gainera, lehen aldiz hoteleko ikuskitun eta jolasetan

parte hartu dute eta zortea ere izan dutela esan digute. Izan ere, punttuko txapelketan beraiek izan ziren garaileak, eta diploma eta guzti etxeratu ziren.



ZUBIETA

Arrano zuria

Karmele Urdanpilleta



Kondairak dio, hasieran, lurrak landu gabeak ziren garaitan, Jainkoak 80.000 herri sortu zituela. Oraindik jenderik ez zen etxe hauek artatxiki hazitegi antzekoak omen ziren.

Aldi berean arranoak bati bizi eman omen zion eta hazitegietako artatxikia eman elikatu zedin. Zeruan hegalek zabaltzearen pozez, planeta birjina Ekialdetik Sartalderuntz zeharkatuz, itsaso eta lurren aginpidez Probidentiak agindutako tokietan bere hegada gelditzean, alez ase eta joan egiten omen zen indarrez gainera zerumuga berrien bila.

Argi, zeru zabal eta materiazko gozamen osotasun horrek mende asko iraun zuen, denboraldi luzeko bizialdia baituzten arranoek aldi haietan. Hala ere, egun batean nabarmen azaltzen zitzaion egi bati atzetan beharra zeukan: neurririk gabe ale haiek jatearen ondorioz, hazitegietako aleak bukatzen ari zitzaizkion. Harrezkero bere gosea neurtu egin omen zuen arrano zuria eta, hala, oraindik mende luzez iraun omen zuen. Gero, ondorengo urteetan, egunero ale bakar bat jaten hasi omen zen. Ondoren ale bat bi egunetik behin. Janari falta larriagotzen

ari zitzaizkion, denbora luzez asteen ale bakar bat jaten omen zuen.

Ondoren ale bakar bat hilero. Gero bat bakarra urteko. Ai! aurretik pilatutako indarrak ahistzen ari zitzaizkion. Ale bakar bat besterik gelditzen ez zitzaion egunear, moko muturrean hartu eta bere indar guztia bilduz, azken hegaldian abiatu zen bere Sortzailearen oinetan erortzeko.

Ibilitako milurteak, bat-bateko instant batean etorri zitzaizkion.

Total eginez esan omen zuen: "Jauna, ia ez naiz bizi izan..."

Eskura ezazu “Zubieta, mila urteko herria” liburua

Bazkideek

500
pezeta!

Noaia! Kultur Elkartearen egoitzan

Gainontzekoek

975
pezeta!

Laurok eta Lizardi liburudendetan



Honelako kontu xelebren ugari aurkituko dituzu

Joxe Ramon Zubimendiren liburuan

Baserria oinordeko bakarraren esku uzteko legea indarrean dago

Pasa den azaroaren bukaeratik indarrean dago baserriaren oinordekotasunari buruzko lege berria. Lege horren arabera dagoeneko posible da zatitu gabe baserria oinordeko bakar bati uztea. Hala ere, lege hau ez da derrigorrez bete behar; baserriaren jabeak aukeratuko du lege horren arabera edota Kode Zibilaren arabera arautu bere baserriaren herentzia.

Garai batean baserria seme zaharrenari maiorazkoan uzteko ohitura zegoen Gipuzkoan eta Usurbilen ere bai noski. Azken hamarkadetan, ordea, baserria indarra galtzen joan da eta baserriko seme-alaba askok herrirako bidea hartu dute. Herentziaren kontuak ere badu zerikusirik guzti honetan. Orain arte baserriaren herentziaren banaketa Kode Zibilaren arabera egitea zen aukera bakarra.

Kode Zibilaren arabera baserri bateko oinordekoa hiltzean hiru zati berdinetan banatu behar du herentzia. Lehenengo zatia gehienetan seme alabak izaten diren oinordeko legitimoen artean, beti ere zati berdinetan. Bigarren zatia maiorazko legalen artean nahi duen bezala banatu dezake. Hirugarren zatia berriz, nahi duenari eman diezairoke herentzia egiten duen baserritarrak.

Iskanbila ugari herentziaren kontura

Herentziaren hiru zatitatik bat seme-alaben artean banatu beharrak, ordea, iskanbila ugari sortu ditu baserrietan. Maite Arostegi EHNEko kidearen esanetan tarta osoa zatitu



beharrak haserre ugari sortu izan ditu baserrietan. *"Baserri-tar batek herentzia egitean bere ondasunak bere seme-alaben artean banatu ohi ditu. Hala ere, seme-alabentzako den hori zati berdinetan banatzea ez da erraza izaten. Baserriarekin gelditzen denak besteei dirutan eman behar izaten die gehienetan beren zatia. Baina baserria nola baloratu? Dirua jaso duenak behar baino gutxiago jaso duela esan dezake eta baserria dirutan baloratzeko desadostasunak agertzen dira oinordekoen artean".* Azken finean seme-alabetako batek berari dagokiona baino gutxiago jaso duela ikusten badu epaitegira jo dezake eta epaitegiak honelako kasuekin beteta daude Maiteren esanetan.

Lege berri honek baserria ez zatitzeko aukera ematen du, guztia oinordeko bakar bati uztea posible baita

Herentzia lege berriaren arabera egiten bada, berriz, baserria oinordeko bakar bati uzteko aukera dago. Herentzia egiterakoan Kode Zibileko hiru zati horiek desagertu egiten dira, eta herentzia ez da derrigorrez oinordekoen artean banatu behar. Testamentu egileak nahi duen banaketa egingo du eta oinordekoek ezingo dute Kode Zibilaren arabera dagokien zati hori eskatu. Hori bai, lege berria aplikatzeko ezinbesteko baldintza izango da testamentua egitea.

Jabeak erabakitzen du herentzia nola egin

Hala ere, lege hau ez da derrigorrez bete behar. Baserriaren jabearen eskuetan egongo da lege horren arabera edota Kode Zibilaren arabera herentzia egiteko aukera. Lege berri honek ez du indarririk gabe uzten aurreko legea, borondatezkoa da. Nahi duenak Kode Zibilaren arabera egin dezake testamentua, eta nahi duenak lege berri horren arabera.

Puntapax kaleko bizilagun batzuen kexa

Usurbilgo Puntapax kaleko 5 eta 7. zenbakietako bizilagunok zera adierazi nahi dugu:

Hainbat gaztek egindakoen ondorioz, ekintza bandaliko ugari eta etxe hauetako bizilagunei eta arkupe hauen azpitik pasatzen diren zenbait per-



tsonei hainbat eragozpen eragiten ari zaizkiela. Esate baterako: gehiegizko soinua (musika oso altu jarrita, udalak berariaz debekatutako bideetatik motorrak ibiltzea...), udaleko materialaren haustura (barandilak, eserlekuak, zakarrontziak, argi harien fundak,

gas kontagailuaren sarrailak- honek ekar ditzazkeen arriskuekin-, 5. Zenbakiko Akometida kaxaren erreketak, lokaletako ateen apurdura...), pintaketa ugari eta zikinkerien pilaketa (zakarrontziak ez dituzte erabiltzen, kasu batzuetan pixa egiten dutelarik portaleko pareten kontra).

Eragozpen hauek guztiak direla eta, gau askotan bertako bizilagunok udaltzaingoari deitu behar izaten diogu. Horregatik, egoera hau salatu nahi dugu.

Udalak ekintza hauek guztien erantzunkizuna bere gain hartu eta hainbeste buruhauste sortarazten ari den arazo honi irtenbide bat ematea nahi dugu; izan ere, oraingoz udalak ez baitigu inolako erantzunik eman. Espero dugu erantzun hau ahalik eta azkarren ematea, egoera hau gero eta zailagoa egiten ari baita.

Besterik gabe, eskaera honi berehalako erantzuna eman-go zaiolakoan adeitasunez agurtzen gara.

Bertako bizilagunak

“Eroski” zentro berria eta euskara: datu (objetibo) batzuk

Usurbil zentroa baserriarren festaburuarekin inauguratu zen ekitaldian “Grupo Eroski” izenekoak euskarari eman zion arretaren berri jaso genuen:

“Hipermercatua” (sic) letreroari jarraiki sartu ginen. Dendetako karteletan eta, ia euskararik ez (“Saizar. Sidra Natural. Sagar-doa” da agerpen urri-urrietako bat). ETB-2ko bi aurkezle aritu ziren espainol hutsean (12 min). “Ongi etorri” hitzak agertzen ziren kartel ugarritan.

Eroskiko zuzendari nagusiak espainolez egin zuen, euskaraz (trakets irakurriz) xerbait tartekatuta. Lasarteko Alkatesak feminismoaren alde eta langabeziaren aurkako azaina goretsi du, espainolez. Usurbilgo Alkatea euskara hutsez mintzatu da. EAEko Gobernuak bozeramaile den Imazek euskaraz eta espai-

nolez (luzeago, dotoreago) egin du mintzaldia. ETB-2ko emakume aurkezleak euskaraz egin du pittin bat (minutua eskas) eta espainolez segitu du.

Biharamunetik aurrera, Eroski enpresak Euskal Herriko zentroetan ohikoa duen politika: euskaraz dagoen guztia espainolez agertzen da, baina inondik ez alderantziz

Ondorioak:

Euskara maila sinbolikoan duten bitartean (“Ongi etorri”, bertsolariak bazter batean, etc),

Hizkuntza praktikoa espainola bakarrik dela erakutsi du Eroskik berriro ere.

Hori ez da gertatzen enpresa horretako zentro guztietan: bes-tetan, tokian tokiko hizkuntzak du lehentasuna (gailegoa, katalana).

“Euskal Herriko errealitatea ez da erabat euskalduna” argudiatu nahi izan zuen “A eredu-ko” komunikabideen aldeko pertsona batek. “Euskal gizartea ez da Eroskiren bezero, eta errealitate hori aldatzeko ahalegine-tan dabil enpresa hori”, erantzun zezakeen herriko tontoenak.

Kezka: horrela segiko al dugu? Lanpostu batzuk sortzearen (aldez edo moldeaz sortu beharrekoak) euskaldun guztion hizkuntzaren aldeko errespeturik eza onartuko al zaio Eroskiri? Araba Euskaraz, kilometroak eta antzeko jaialdietan pankarta jarrita, nahikoa egin al du Eroskik?

Zertan bereizten ote da enpresa horren hizkuntza jokaera eta Carrefour edo Almacenes Gutiérrez-en?

Edorta Agirre

EArekiko akordioa dela eta

Pasa den udazkenean Usurbilgo EA eta EAJ-PNV alderdi politikoekin elkarrizketak egiteari ekin genion. Elkarrizketa horien xedea Udal kudeaketarako akordioa eta akordio politikoa lortzea izan zen. Bi alderdiek oso jarrera positiboa izan zuten hasiera hasieratik. Usurbilgo EHk hauteskundeetarako egina zuen herri programa oinarri izanik, denon artean Usurbilen datozen urtetan egin beharreko egitasmoak zehaztu genituen; guztia herriaren onerako.

Akordio politikoa oso garrantzitsua izan da guretzat, eta oso positiboki baloratu beharra dugu. Bertan Euskal Herriak egun bizi duen gatazka politiko-armatua gainditzeko konpromezuak hartu genituen, eta hor Lizarra-Garaziko akordioa izan genuen oinarri. Agian batzuk gogoratzen ez badute ere, aipamen txiki bat egitea interesgarria iruditzen zaigu, indar espainolistek akordioa guztiz desitxuratzeko intoxikaxio ahaleginak hor baititugu, eta duela gutxi PNVk ere akordioa desitxuratzeko saikera egin baitu. Akordio horretan Euskal Herriaren hitzaren errespetuan oinarritu behar dela bake prozesua aipatzen da, horretarako baldintzarik gabeko elkarrizketa ezinbestekoa delarik, eta gatazka politikoaren Konponbide fasea inongo biolentzia espresiorik gabe gauzatu da (estatuek herri honi inposatzen dion bio-



lentzia armatua eta herri honen erantzuneko biolentzia).

Akordio politikoaren beste puntu garrantzitsua Nazio Erakuntzan pausoak emateko konpromezua izan da, herri bat, nazio bat osatzen dugu eta herri bezala iraun ahal izateko gure hizkuntza, ekonomia, kultura, instituzioak... bultzatzeko konpromezua hartu dugu.

Guzti hori lortzeko herri eta auzo mailan egin beharreko lana ezinbestekoa da, herritar ororen elkarlanaren ondorio bezala lortuko baititugu gure helburuak, eta horregatik lortutako akordioa oso positiboa iruditzen zaigu.

Bestalde ezin gelditu Usurbilgo EAJ-PNVri buruz aipamenik egin gabe, akordio politikoa eta Udal kudeaketa akordioa

beraiekin eztabaidatu eta kontsentsuatu baitzen. Guztion artean egin genuen, beraien beren adostasuna eman zuten, eta akordioa publiko egiteko data jartzea besterik falta ez zenean atzera egin zuten. Gure ustez, beren base-etako abertzale zintzoen nahari muzin egiten diote, eta gure herriaren burujabetza prozesuan elkarrekin lanean izango bagara ere eta gure eskua beti luzatua badago ere, oraingoan atzerapauso (impasse) txiki bat egin dute. Espero dezagun denbora gutxiko impasse-a izantea.

Besterik gabe, usurbilgo herritarrei herri aske izateko helburua lortzeko eguneroko lanean etenik gabe murgiltzeko gonbidapena luzatzen diogu.

Euskal Herritarrokeko udal ordezkariak

**TXARO ARTZE
ILEAPAINDEGIA**

**Buru-azalaren zainketa
Ile-apainketa**

Etxebeste, 3

Tel. 37 16 85

TXIKILINO

- G O Z O K I A K -

IZOZKIAK - FRESKAGARRIAK - FRUITU LEHORRAK

Zubiaurrenea, 3

Tel.: 696 851979

**BORDATXO
EDARITEGIA**

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2 Tel.: 943 37 10 42

Haimar Zubeldia

“lehenengo garaipena lortzea izaten da zailena”

Lortu du profesional mailako lehenengo garaipena, eta nola gainera. Euskal bizikletako erlojupekoa irabazteaz gain, sailkapen orokorrean Haimar Zubeldia izan da onena. Ametsa egi bihurtua. Izar haundi baten jaiotzaren aurrean ote gaude? Gu, Urdaigara igo eta berarekin egon ginen hurrengo egunean. Luze eta zabal hitz egin genuen Oa-ko egongelako siloian eserita.

Euskal bizikleta hasi zenean zein asmo zenituen buruan?

Nire prestaketa laisterketa honetara bideratuta egonda. Denboraldia lasai hasi nuen garai honetan, maitatza eta ekainean, ondo egoteko eta azken entrenamenduetan inoiz baino sentsazio hobek izan nituen. Horregatik, laisterketa hasi aurretik etaparen bat irabazten saiatzea zen nire helburua. Lehenengo egunean saiatu nintzen, baina ezin izan nuen garaipena lortu.

Lehenengo etaparen Belaten gora erakustaldi bikaina egin zenuenean Euskal Bizikleta irabazteko aukerak izateko indarrak alferrik gastatzen ari zirela esan zuenik ere bada.

Hain ondo egonda kartak azkarregi erakutsi nituela esan zidan Xabier Usabiagak. Nik banekien ondo negozi, baina horren ondo... Lehenengo etapa horretan ihes egin nuenean jendeak Belate oso ondo igo nuela esaten zidan, atzekoak azkar etorri baziren ere minutu erdia atera niela... baina horrelako erakustaldi haundirik egin nuenik ez nuen uste. Jendeak hori esateak



morala eta konfidantza eman zizkidan hurrengo egunetarako.

Erlojupekoan, ordea, denak harrিতuta utzi zenituen. Honelako erlojupekoa egitea espero zenuen?

Ordurarte erlojupeko batean lortuta nuen emaitza onena hamargarren postua zela kontuan hartu behar da. Horregatik, ahalik eta denbora gutxien galtzea eta bost lehenengo postuetan sartzea zen nire helburua. Izan ere, taldea nola ibiltzen ari zen ikusita azken eguneko etaparen aukerak izango genituela uste genuen. Beste txirrindularien erreferentziarik ez nuen, baina ibilbidea ondo ezagutzen nuen eta sentsazio oso onak izan nituen erlojupekoan zehar. Hala ere sorpresa izan zen niretzat.

Amaierako pankarta pasatakoan denborarik onena zurea zen, baina oraindik txirrindulari asko zenituen atzetik.

Beldur haundiena Igor Galdeanok ematen zidan. Bera zen faboritoetako bat, eta berak irabaziko zuela esaten zuten ia denek. Mendate gainera 12 segundo ateratzen

nizkion, gero bost segundura jeitsi zen alde... azkenean zortzi segundo atera nizkion. Hala ere azkenengo pasa arte ez duzu sinisten eta David Etxeberriak amaitzean lortua nuen profesional mailako nire lehen garaipena.

Azken etaparen urduritasuna nabaritutako zenuen ezta?

Bezperatik nengoen urduri, baina taldeko beteranok asko lagundu zidaten. Inoiz ez nintzen egoera horretan egon eta urduri ez egoteko oso lasaia izan behar da. Ni lasaia banaiz ere, barrutik sufritzen dut. Hori etapa hasi bitartean izan zen, behin laisterketari ekindakoan taldeak ondo erantzun zuen azken mendatera arte eta ondoren banekien nik erantzun behar nuela. Ondo aurkitu nintzen, erasoei ondo eutsi nien eta mendateko pankarta baino lehenago nire eskura ikusi nuen Euskal Bizikleta.

Estuasunik pasa al zenuen azken goieran?

Igor Galdeanok erasoia jo zenuenean ondo eutsi nion. Bere atzean jarri eta zera pentsatu nuen: berak igoko du pinoia

lehenago, bera eseriko da lehenago. Eseri zenean bere parean jarri nintzen, parean jarriz hobeto zoazela ematen baitu.

Iaz eta aurten antzeko prestaketa egin duzu. Zer aldatu da aurten garaipena lortu ahal izateko?

Ezer ez da aldatu. Iaz, agian, atzeratuago eraman nuen prestaketa, baina orduan ere entrenamendu berdintsuak egiten nituen. Hala ere, pixkanaka-pixkanaka txirrindulari bezala egiten ari naiz, urtebete gehiagoko esperientzia dut, gorputza ere egiten ari da... pausoz-pauso hobetzen ari naiz. Garaipena ez da etorri aurten egin dudan zerbaitegatik, aurretik egiten ari naizen lanagatik baizik.

Bi urte eta hilabete batzuk behar izan dituzu profesionaltan lehenengo garaipena lortzeko. Etsitzen hasia zinen?

Etsitzen inoiz ere ez. Askotan oso ondo zaude eta ez duzu garaipenik lortzen. Galdeano bi edo hiru hilabete ondo egon da, baina itzulirik ez du irabazi. Aitor Garmendia, berriz, denboraldi hasieratik ondo egon ondoren, jeisten hasi denean orduan irabazi du etapa bat. Askotan zorte kontua da eta ezin da esan ondo zaudenean irabazi egingo

duzula. Kontutan hartu beharreko faktore asko daude tartean.

Zer pasa zen zure burutik lehen garaipen hau lortzean?

Garaipena lortu eta segituan egin nuenak zuen garrantziaz ez nintzen jabetzen. Orain lasaiago etxean nagoenean zera esaten diot nire buruari: Euskal Bizikleta irabazi duk Haimar eta laisterketa hau irabazi dutenen artean hago: Indurain, Olano, Etxeberria eta hurrengo urtean Haimar Zubeldia jarriko du.

Txirrindularitzako izar berri baten aurrean gaudela esaten da orain.

Hori azkarregi esan dute agian. Garaipen hau puntu baten antzekoa izango da, honeraino iritsi naiz eta orain beste gauza bat hasten. Lehenengo garaipena lortzea oso zaila da, nik lortu dut. Hemendik aurrera konfidantza gehiagorekin ibiltzea espero dut, eraso jotzean irabazteko erasotzea... Baina beste aldetik badakit gehiago zainduko nautela, bai beste txirrindulariek baita jendeak ere.

Hemendik aurrera gehiago eskatuko zaizu ezta?

Baietz uste dut. Horrelako garaipen bat lortu ondoren jendeak garaipen gehiago

eta ahal bada haundiagoak nahi izaten ditu. Ni erantzunkizun horri aurre egiteko prest nago.

Zu izan al zaitetzke hemendik aurrera Euskaltelen liderra?

Etxean irabazi dugunez taldearentzat historikoa izan da garaipen hau lortzea. Honi garrantzia emango zaio, eta nik irabazi dudanez nik egingdakoari ere bai. Baina kontutan hartu behar da Euskalteleko txirrindulariek podiuma egin dutela bost edo sei laisterketetan eta lau txirrindulari ezberdinekin gainera. Haimarrez gain, liderra izatearen ardura hartu dezaketen beste txirrindulari batzuk badaudela uste dut.

Zein dira aurrerantzean zure asmoak?

Larunbatean Clasica de los Alpes egun bateko laisterketa egingo dut, eta hurrengo egunean Dauphine Libere izeneko 8-10 eguneko laisterketan izango naiz. Laisterketa honi Tour txikia deitzen diote eta Tourra prestatzen ari den jendeak parte hartzen du. Ondoren ez dakit zer egingo dudan, baina baliteke Kataluniako Voltan eta Espainiako txapelketan parte hartzea. Ondoren atsedena hartuko dut gero Espainiako itzulia prestatzen hasteko.

Garaipen hau lortu ondoren talde haundiak atzetik izango dituzu.

Ni Euskaltelen gustora nago. Gazte batentzat talde hoberik ez dago; etxean zaude eta talde giroa ona da. Denboraldi honetaz gain beste urte bateko kontratua gelditzen zait eta hori betetzea da nire asmoa. Hala ere eskaintza guztiak entzuteko prest nago, guztien eskeintzak entzun gabe hemen geldituko naizela ezin da esan. Diru kontua, kirol proiektua... guztia begiratu beharra dago.

Josu Aran berri




Euskal presoen eskubideak defendatzeko mobilizazio ugari egin dira herrian

Duela aste batzuk garra-xi larria luzatu zioten euskal preso politikoek gizarteari. Beraien eskubideak defendatzen laguntzeko eskatu zuten, eta maiatzaren 22tik 27ra bitartean hainbat ekitaldi izan dira presoek elkartasuna adierazteko. Manifestazioak, greba, itxialdiak eta irratsaio berezi bat ere izan dira. Irratsaio honetan gainera, herriko bi presoek eta Xabier De Miguel errefuxiatuarekin hitz egin zuten.

Herrian mobilizazio ugari izan ziren pasa den astean. Haste-ko, maiatzaren 23an Udarregi ikastolan zenbait ikaslek greba deialdiarekin bat egin zuten. Hurrengo egunean udaleko hautetsien greba eta itxialdia izan genuen, eta konzentrazio bat ere egin zen udaletxe aurrean. Gauean itxialdiak egin ziren zenbait lantegitan eta udalean bertan ere bai.

Ostegunean deituta zegoen taberna, komertzio eta lantegietako grebak ere erantzun zabala izan zuen herrian. Denda eta taberna batzuk egun osoan itxita egon ziren, beste batzuk, berriz, eguerdiko 12.00-etatik 14.00-etara itxi zituzten beren ateak. Lantegiei dagokionez, Savasa, Igepak, Cortes eta beste enpresa txiki batzuetan bi orduko geldialdiarekin erantzun zioten greba deialdiari. Ostiralean manifestazioa egin zen herriko kaleetan.

Dueñas eta Alcala Mecotik herriko etxeetara



Udarregi ikastolako gela batetik (lehen Agerialde zena) euskal presoek ahotza lau haizetara zabaltzeko aukera izan zen pasa den maiatzaren 24an. Irratsaio berezia izan zen hura. Berezia euskal presoek egoeraren berri gertutik jarraitzeko aukera izan genuelako. Gertutik eta zuzenean gainera; **Ramon Uribe eta Xabier Aranburu "Xomorro"** herriko euskal presoek eta **Xabier De Miguel** errefuxiatuaren hitzak FM 107 frekuentzia jarria zuten herriko txoko guztietara iritsi baitziren.

Palentziako Dueñas espetxetik iritsi zen lehen ahotza. **Ramon** zen. Astelehenean gose greba hasita, familia arteko, lagun eta inguruko-

kin hitz eginez asetu zituen tripatik zetozkion orroak. Ia orduerdiko elkarrizketan espetxean bizi duten egoeraren berri emateko eta **Xabier De Miguel** errefuxiatuarekin hitz egiteko ere denbora izan zuen.

"**Xomorro**" izan zen hurrengo. 10-15 minutuz behintzat, Usurbildik gertuago izan genuen aginagarra. Alcala Mecon egon arren herrian bertan balego bezala entzun genituen espetxean pasatzen dituzten mixeriak. Honek ere telefonoz "**Ezkerra**" errefuxiatua besarkatu ahal izan zuen. Pena izan zen herriko bi euskal presoak elkarrekin hizketalditxo bat egiteko aukerik ez izana.




HERRIKO TABERNA

Astebukaeretan bokatak, plater konbinatuak, pintxo beroak...

Tel. 943 36 02 17



Euskal presoak etxera!



TXIRIBOGA
TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13


Ramon Uribe gose greban

Palentziako Dueñas-ko espetxean dagoen Ramon Uribe usurbildar preso gose greban egon da euskal presoen eskubideen alde iraun duen mobilizazio asteak iraun duen bitartean. Pasa den maiatzaren 22an hasi zuen gose greba eta maiatzaren 27an amaitu. Izan ere, egun horretan amaitu zen euskal preso politikoek azaroaren 1ean hasi zuten gose greba mugagabea. Asko izan dira gose greban egon diren euskal pre-



Udarregi Ikastolaren eguna ospatzeko egitarauaren barnean "Kontsumismoaren gehiegikeriak gaztedian: jarrerak eta jokabideak" lemapean hitzaldi bat egon zen maiatzaren 29an ikastolan. Amaia Sanchez, URKOA kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteko ordezkaria izan zen hizlaria. Gai honen inguruan gurasoen aldetik dagoen kezka ikusirik, lau gai jorratu zituen batez ere; kontsumismoaren gehiegikeriak, publizitatearen mundua, elikaduraren gaia (anorexia eta bulimia) eta gorputzaren gurtza.

soak. Usurbildar presoek dagokionez, Patxi Segurola "Ximio" 45 egunez egon zen gose greban La Sánteko espetxean. Ramon, berriz, aurrez esan dugun bezala bost egunez egon da gose greban. Xabier Aranburuk osasun arazoak direla eta ez du gose grebarik egin, baina espetxe barruan izan dute beste zereginik. Txapeoak, protestak... ez dira geldirik egon eta horren ondorioz isolamenduak jasan dituzte, eta jasaten ari dira oraindik, Alcalá Mecoko espetxean dauden euskal preso politikoak.



Hilari berriko lanak amaitu dituzte dagoeneko. Pare bat urtean lanean ibili ondoren, hilari berria erabiltzeko prest dago ja. Hilari berria egitean berehala erabiliko zenaren ustea bazegoen ere, Joxe Antonio Altuna alkatearen esanetan inaugurazioak itxaron egin beharko du. "Hilari zaharrean dauden nitxoak bete arte ez dugu berria erabiliko. Beraz alferrikakoa da orain inauguratzea gero erabiliko ez badugu. Bere garaian etorriko da inauguratzeko momentua.



Txan, txan, txan... Txan magoa izan genuen protagonista pasa den maiatzaren 27an Kalezarko plazan. Eguzki gorritan bada ere, telebistan hain famatu egin den magoaren triki-mailuez gozatu ahal izan zuten Kalezarrera inguratu ziren haur eta gurasoek. Eguzkiak gogor jotzen zuenez, aurrez prestatuta zeuzkan trukuak aldatu behar izan zituen. Nahiz eta lehenengo ilaran zeudenek "tranpa" hitza behin baino gehiagotan erabili, guztiak aho zabalik utzi zituen.

Pinturas
lon



Iturgintza - Gasa - Berokuntza

J. Orbegozo



ALBORTA
HARATEGIA

Etxeko berezitasunak:
• Oholkiak
• Txorixoak
• Kroketak...

Behoko kalea, 4
Atxegalde 943 36 57 42

Hernaniren aurka ezinean Gipuzkoako herriarteko pelota txapelketan

Herriko pelotariak ezin izan zuten garaipenik lortu Gipuzkoako herriarteko txapelketan Hernaniren aurka jokatu zuten norgehiagokan. Kadeteek 22-12 galdu zuten, jubenilek 22-4 eta haundiek 22-10. Kanporaketa gainditzeko aukera gutxi badituzte ere, datorren ekainaren 2an Hernanin jokatuko dituzte itzulera-ko partiduak.

Hurrengo kanporaketarako txartela lortzeko ia aukerarik gabe gelditu ziren pasa den maiatzaren 26an herriko pelotariak. Herriko frontoian jokatu arren, garaipenik lortu gabe gelditu ziren eta Hernanik ia eskuan du garaipena.

Asier Portu eta Asier Arruti kadeteak ez ziren gaizki hasi. Hamargarren tantora arte aurretik izan ziren, baina 10-9 irabazten joatetik 10-18 galtzera pasa ziren ia konturatu ere



egin gabe. Gehienetan aurkariak beraien mende izaten bazituzten ere, ez zuten tantorak amaitzen asmatu, eta azkenean 22-12 galdu zuten partida.

Jubeniletan erraz nagusitu ziren hernaniarrak. Hasierahasieratik gehiago izan ziren eta **Haritz Esnal eta Jon Arrutik**

ezin izan zuten ezer egin. 22-4 izan zen azken emaitza.

Haundietan, berriz, joku polita ikusi ahal izan zen herriko frontoian. **Enrike Huizi eta Imanol Zarautzek** 22-10 galdu zuten, baina pelotazaleek asko gozatu zuten **Huizi eta Oiaga** aurrelariekin. Biak bizi-bizi aritu ziren aurreko koadroetan.

Ekainaren 4an gaztetxoek txapelketako finalak



Etorkizunean pelotari haundiak izan daitezkeen gaztetxoak ikusteko aukera bikaina izango da datorren ekainaren 4an goizeko 10.00etatik aurrera. Benjamin, alebin, infantil eta kadete mailetan nor baino nor gehiago ibili dira Usurbilgo txapelketan Gipuzkoako herri askotatik eta Goizuetatik etorritako pelotariak. Pasa den maiatzaren 28an finalurreko partidak jokatu ondoren, badakigu ja nortzuk jokatu dituzten azken partiduak:

Benjaminak
Gaztañaga, Ormaetxea eta Aizpuru (Andoain)
aurka
Olaizola, Sancho eta Esnaola (Usurbil)

Alebinak
Narbarte- Apezetxea (Goizueta)
aurka
Zabala-Azpitarre (Hernani)

Infantilak
Egia-Esnaola (Andoain)
aurka
Agirrezabala-Larrañaga (Azpeitia)

Kadeteak
Loiarte-Astiz (Goizueta)
aurka
Portu-Arruti (Usurbil)

IGELTSERITZA

URDANTZI, C. B.

Mugikorra: 649435475
649435476
☎ 943 363370- 361439

**TXURRUT
TABERNA**



Giro eta musika atsegina!

San Esteban kalea, 1
Tel: 943 36 00 80

TABERNA

TRAGOXRRA

BAZKARIAK
ETA AFARIAK

Santuenea 23
Tf. 9433627 34

Eskubaloiko izarrekin jokatzeko aukera Oiaro kiroldegian



Nork ez du amestu Errealeko Alberto atezainari jaurtiketa bat bota eta gola sartzea? Nork ez du amestu Tau Baskoniako Roger Esteller jokariaren aldamenean baloiak saskira botatzen aritzea? Ba norbaitek eskubaloiko Ohorezko Mailako jokariekin talde berean jolas-teko ametsa egin badu Usurbil Kirol Elkarteak amets hori egi bihurtuko du.

Izan ere, ekainaren 10 eta 17an, eskubaloiko goi mailetan jokatzeko duten hainbat

kirolari Oiaro kiroldegian izango dira herriko haur edo gazteekin jokatzeko prest. David Rodriguezen pase bat jaso eta Usurbildik Bidasoa taldera joan zen Asier Zubiria atezainari gola sartzea nori ez litzaioke



gustatuko? Ba orain duzu aukera. Bidasoako taldeko Asier Zubiria, Gurutz Aginagalde, David Rodriguez, Ibon Enbil eta Julen Aginagalde, Portland San Antonioko Xabier Mikel Rekondo eta Zarautz-ko jokalaria den Iñigo Morenorenkin jokatu ahal izango dute nahi duten guztiek datorren ekainaren 10 eta 11n. Nesketan berriz, Bera Berako Amaia Ugartemendia

Eskubaloian jokatzeko dutenek eta inoiz jokatu ez dutenek ere ederki pasatzeko aukera izango duzue asteburu horretan. Badakizue, Oiaro kiroldegian zain izango dituzue jokari haundi hauek.

LATAILLADE

ITURGINTZA GAS ETA BEROGINTZA
INSTALAKUNTZAK

ARIZTITXO KALEA, 8 BEHERA
20170 USURBIL

TLF: (943) 36 26 35- 36 33 48
Mobila: 609 888021

Kalkos kopisteria

- ☞ Fotokopiak
- ☞ Fotokopiak koloretan
- ☞ Plastifikazioak (DIN A2 arte)
- ☞ Fax zerbitzua (jaso eta bidaltzeko)
- ☞ Planoen kopiak (AO arte)
- ☞ Ordenadoreko lanak
- ☞ Enkuadraketak (wire-o, kiribilak, liburuak)
- ☞ Zure argazkia puzzle batean

Juan de Garay kalea
20160 Lasarte-Oria

Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55



kafe berezia

San Esteban kalea, 8
TLF 36 27 70

20170
USURBIL



ARRATE

**TABERNA
ETA**

ZAHAR EGOITZA

*Biltzeko toki aproposa
Orain, billarrean eta futbolinean jokatzeko
aukera aparta!*

Aginaga

Tlf. 943 36 63 40

DOCTOR DESEO

Datorren ekainaren 10ean, *Doctor Deseo* eta *Zea Mays* taldeek kontzertua eskainiko dute gure herriko frontoian. Ohiko atsedena hartu ondoren, bueltan da Doctor Deseo bere seigarren diskoarekin "*Atrapado en tu silencio... de incertidumbres y caricias*". Francis Diez taldeko abeslariarekin hitz egin dugu.

Bi urte geldirik egon ondoren berriz agertu zarete. Zer dela eta geldialdi hori?

Gure taldeko araua da hori. Disko bat kaleratu ondoren, 8 bat hilabete ematen ditugu biran eta gero urtebeteko atsedena hartu ohi dugu. Denbora horretan hurrengo diskoa prestatu eta deskonektatu egiten dugu, "Show bussines" deritzonetik urrundu egiten gara. Hurrengo diskoa prestatzen, kanta berriak sortzen, ordenagailu lanak egiten... eman dugu atsedendaldi hori, baina elkarrizketak eta eskenatokiak ahaztuta.

Noiz hasi zineten disko berria grabatzen?

Urte zaharra pasata, urtarri-laren 3an hasi ginen, beraz, gabonak lanean pasa genituen. Hala ere, udaraz geroztik entsaiotan hasi ginen jo ta ke.

Ondo joan al da grabazioa?

Bai, egia esan joku handia eman digu disko honek eta, grabatzeko orduan ez diogu mugarik jarri geure buruari. Gainera, nahasketa mahaian Juan Lastra izan dugu, beste talde askorekin aritu dena eta bere lan egiteko modua interesatzen zitzaigun. Grabazioa bestetan baino lasaiagoa izan

"Disko berria grabatzerakoan ez diogu mugarik jarri geure buruari"



da eta gainera, dibertigarriagoa. Bururatzen zitzaigun edozer gauza eraman eta Juanek ederki moldatzen zuen.

Gustora zaudete azken emai-tzarekin?

Bai gustora gaude, baina inoiz ez zaude guztiz gustora eta hori ona dela uste dut. Aurrez badakit inoiz ez naizela guztiz pozik egongo egindako lanarekin, ispiluan begiratu eta bere burua beti gizona ikusten duen anorexika baten modukoa naiz ni.

Nolako harrera izan du lan berriak?

Oraingoz kritikak onak izan dira. Jendea estilo berriarekin harritu samar geratu bada ere, oso ondo hartu du disko berria. Aurreko estiloaren jarraipen bat badago, nahiz eta elementu elektronikoak sartu, oinarrian abestiak eta sentimenduak berdinak dira.

Lan berriak tekno ukitu handia duela esaten da, ordenagailuarekin lan egin duzuela...

Ordenagailuarekin lan egiteak ez du esan nahi tekno ikutua izango duenik. Adibidez

Euskal Herrian ordenagailuarekin gehien lan egiten duen taldea, ziurrenik, "Platero y tu" izango da eta ez da teknoa. Ordenagailuak aukera handiak ematen ditu, merkeagoa da eta lan egiteko erosagoa. Egia da tekno ukitua badaukala, hasi ginenean erritmo kuxta bat erabiltzen genuen eta aurreko diskoan *dance* ukituak ere bagenituen. Gure taldeak beti kontuan izan du *pop*-aren eta *rock*-aren historia eta bere elementuak ahal edo nahi izan ditugun moduan erabili ditugu. Oraingoan ere, hala egin dugu elementu elektronikoekin.

Bosgarren diskoak, "Hay cuentos aùn por inventar", eraman al zuen famara Doctor Deseo?

Hasi ginenetik gora egin dugu, baina modu orekatuan. Hasi ginenean puri-purian zegoen "Rock radical vasco" zeritzona eta gu hortik aparte geratzen ginen arren, bagenuen gure entzulegoa. Pixkanaka gauzak aldatzen joan dira Euskal Herrian eta mantso bada ere, gora egin dugu. Nahiko independenteak izan

gara beti eta ez baduzu izu-garrizko *boom-a* hasieran, pixkanaka egin behar zure bidea. Eskenatokian beti dena eman izan dugu eta horrek bere fruitua eman du.

“Grabaketa bestetan baino lasaiagoa eta dibertigarriagoa izan da”

Orain jende gehiago joaten da zuen kontzertuetara?

Bai, askoz ere gehiago, ni askotan harrিতuta geratzen naiz. Pixkanaka eginiko lanaren emaitza da hau. Lehenengo diskoan jarraitzaile multzo txiki bat genuen. Bigarrenarekin saltoa eman genuen “La chica del batzoki” abestiarekin, batez ere. Hirugarrenean aldaketa nahiko nabarmena izan zen. Laugarrena oso garrantzitsua izan zen, Hertzainak taldeko Txanpi eta Kikearekin elkartu baikin. Dagoneko Euskal Herrian “etiketak” ez zeuden hain definituta eta beste gauza batzuk hartu zuten garrantzia.

Zein jende mota joaten da zuen kontzertuetara?

Nahiko talde ezohikoa gara-
la uste dut, 20 eta 40 urte

bitarteko jendea mugitzen dugu eta mota guztietakoa. Gainera, nik, heldua naizen aldetik, hain gaztea ez den eta oraindik kezka, interesak eta artegatasunak dituen jende hori harrapatu nahi dut.

Erdaraz abestu arren, jende asko mugitzen duzue...

Ni gaztelaniaz mintzatzen naiz, eta euskara ulertu arren, nire sentimenduak hobeto adierazten ditut gaztelaniaz. Euskal Herrian inoiz ez dugu arazorik izan hizkuntzarekin, euskaraz lan egiteko beste batzuk arazo gehiago izan dituzte ziurrenik.

Erdaraz abesteak ba al du zerikusia diskoa Euskal Herri- kanpo zabaltzarekin?

Oso argi dugu independenzian lan egin nahi dugula, multinazional batzuen eskaintzak ukatu ditugularik. Euskal Herrian ahoz ahoko publizitateari esker arrakasta lortu dugu, baina estatu mailan hori oso zaila da. Baina nik neuk argi daukat gustora lan egin nahi dudala, ez dudala urte guztian hara eta hona ibili nahi furgoneta batean. Horregatik lasai hartzen dugu, zabal-kundearen kontua ez da hain garrantzitsua guretzat, musikaz gozatzea da garrantzitsuena.

Euskal Herrian musikatik bizi-

izerik ba al dago?

Euskal Herrian talde oso gutxi dago musikatik bizi dena. Guk planteatu ere ez dugu egiten, gehien maite duzuna izorratu baitezakezu lan mixe-
rable batean bihurtuz gero. Gainera ohiturak pasioa hiltzen du.

Disko honekin kontzertu gutxiago emango omen dituzue.

Bai, kontzertu gutxiago eta baldintza hobegotan emateko asmoa dugu. Aurreko diskoarekin Euskal Herriko txoko guztiak pasa genituen eta hori aldatu egin nahi dugu. Oraingoan bideo pantaila bat, argia hobegoa...erabiliko ditugu, jendeari zerbait gehiago eskaintzeaz gain, hau ez dugu aspertu nahi. Honek guztiak diru gutxiago irabaztea badakar ere, horren aldeko apustua egin dugu.

Zer nolako ikuskizuna ikusiko dugu Usurbilen?

Ez dakit, inoiz ez dut ezer prestatuta eramaten. Printzipioz soinu ekipo oso indartsua eramango dugu, pantaila handi bat bideo ikuskizunarekin, argiztapena ere oso ona...eta gainera *Zea Mays* dator gurekin, niretzat oso talde ona eta indartsua dena. Askok gustatzen zait.

Amagoia Mujika

“Elektrizitatea”: Zea Mays taldearen bigarren lana

Pasa den hilean aurkeztu zuen Zea Mays taldeak bere bigarren diskoa Bilboko Kafe antzokian. 1997an Euskadi Gaztea maketa lehiaketa irabazi zuen talde honek eta orduztik oso ezaguna bihurtu da. Beren bigarren lanari “Elektrizitatea” deritza eta mota guztietako abestiak aurki omen ditzakegu bertan, indartsuak zein intimistak. Guztira 14 abestik osatzen dute disko berria, ekainaren 10ean zuzenean entzuteko aukera izango dugu.



DYA: 14 urte lanean etengabe

Edonora joaten direla ere, kuriositatea pizten dute; denok begira-begira gelditzen baikara ambulanzia bat ikusten dugunean. Batzutan azkarregi doazelako, bestetan berandu etorri direlako, beti badugu zerbaite esateko erakunde honen inguruan. Baina, noizbait pentsatu al dugu borondatez betetzen dufen lanaren garrantziaz?

Duela 14 urte sortu zen Usurbilgo DYAko ordezkariak. Garai hartan Lasarten zeuden baina egoera ez zen oso ona, lokalik ere ez baitzuten. Beraz, Usurbilen Delegazio bat irekitzeko aukera ikusi eta Udalarekin harremanetan jarri ziren. Harrera oso ona izan zuten zuten zuten. Jose Luis Artola DYAko koordinatzaileak esan digunez, hasiera hartan Andatza taldeko zenbaiten bultzada garrantzitsua izan zen, baita orduan zinegotzi lanetan zebilen Garbiñe Errekondoren laguntza ere.

Gaur egun Usurbilgo bost pertsonak dihardute DYAn borondatez lanean eta egiten duten lana azpimarratzekoa da benetan. Haiek dira gaur egun DYAn diharduten Usurbilgo bolondresak : **Jose Manuel Ferreira, Rosa Zubeldia, Jose Luis Artola "Joxepo", Gorka Aierbe eta Iñigo Villafafilla.** Batzuk gidari lanetan aritzen dira, besteak sorosle lanetan eta badira bi lanetan aritzen direnak ere. Usurbilen beti jende faltan ibili omen dira, antolatzen dituzten sorosle ikastaroetan ere, ez omen da parte hartze handia izaten. Baina Joxeporen ustez hau ulergarria da, "hemen jendea mila saltsatan sartuta baitago". Jende gutxi izan arren,



Beti buruan izan behar dugu honako telefono hau: 943-464622.

izan direnak bolondres finak dira eta beti daude lanerako prest. Hala ere, norbait laguntzeko prest balego, gustora hartuko lukete. Beharrezko baldintzak zein diren? gidari izateko B2 edo C1 deritzon gidatzeko karneta behar da eta sorosle izateko, berriz, sorosle titulua. Honetarako, DYAk berak bi ikastaro antolatzen ditu urtean zehar. Bat duela gutxi izan da eta bestea iraila aldera izango da.

DYAren ordutegia

Langile faltan Usurbil eta Lasartek delegazio bakarra dute. Ez dute ordutegi finkorik, guztiak borondatez baitabilta DYAn lanean. Hala ere, Usurbilgo egoitzan ez egoteak ez du esan nahi bere zerbitzua izango ez duzunik. Gainera, Usurbil nahiko herri lasaia da eta normalean ez dute lan askorik izaten. Hala ere, beti buruan izan behar dugu honako **telefono**


hau: 943-464622. Edozein ez-behar gertatzen bada edota DYAkoekin hitz egin nahi baduzue, ez ahaztu telefono hori. Usurbilen ez badaude, telefono horretara deitu eta bost minututan hemen izango dituzue, laguntzeko prest.

DYAkoek edozer gauzari eusten omen diote, zauri txiki batetik, bihotzeko batera. Baina ez badira iristen eta ezbeharra oso larria bada, Donostian medikalizatutako ambulanzia bat dago eta honi deitzeko aukera dute. Hala ere, azkarra omen da zuzenean gaixoa ospitalera eramatea eta hala egin ohi dute.

Gainera, zerbitzu prebentiboak ere egiten dituzte. Ezbehar bat izan daitekeen ekitaldietan ere hor izan ohi dira. Adibidez Andatza eguna eta Sagardo eguna huts egin ezinoko zitak izaten omen dira. Gainontzeko ekitaldietan DYAko ambulanzia hor egotea nahi badute antolatzaileek deitu besterik ez dute egin behar.

Pasa den asteburuan lan asko izan omen zuten, Sagardo Eguna izan baitzen. Sagardo Egunean bi arazo nagusi izaten omen dituzte: batetik mozkorrak eta bestetik,

mozkortutakoek egiten dituzten gauzak. Aurtengoan bi ezbehar nagusi izan dira. Bate-tik Troia parean istripu bat izan zen goizaldera eta lau zauritu izan ziren, Martin Alustiza pilotaria tartean. Zorionez inor ez zen larri zauritu. Bestetik, Txokolaldeko gazte bat gogor jipoitu



zuten eta kolpeak besterik ez zituen arren, astindu ederra jaso omen zuen.

Anbulantzia berria

Sagardo egunaz gain, Andatza eguna izaten da beste zita garrantzitsu bat. DYAkoez daukaten patrola oso berezia da eta erraz iristen da Andatza goralde-ra. Gipuzkoa osoan ekipamendu onena duena omen da eta Sevillako "El Rocio" delakotik ere deitzen omen diete patrolarekin joateko. Orain, gainera ambulanzia berria ekarri dute. Lasarte eta Usurbil zonalderako izango da eta Behe-Oria deitu dute. Ekipamendu benetan ona dauka ambulanzia berriak, banku hidrauliko eta guzti.

Larrienak istripuak

Inguru hauetan Oriotik Usurbilerako bidean gertatzen diren istripuak dira kasurik ohiko eta larrienak. Bidea ez da batere ona eta DYAkoez lan gehien bertan izaten dute. Gogoan dute iaz Etxealdiako zubi parean izan zen istripua. Ber-

tan, bi gaztek galdu zuten bizia.

Bestetik, 97ko uholdeak ere latzak izan ziren. Zauritu larririk izan ez zen arren hondamendi handia izan zen. Ikuskizun negargarria izan zen uholdeek utzi zutena. Uholdeekin jarraituz, Biescas-eko uholdeak ere gogoan izateko modukoak dira. Usurbilgoa izan zen Gipuzkoa aldetik laguntzera joan zen lehenengo DYA eta ez zen lan erraza izan han topatu zutena. Gipuzkoako jendea zegoen Biescas-eko kanpalekuan eta baita ezagun zenbait ere, "oso latza izan zen lagun batekin hildako emaztearen bila ibiltzea ospitale-ospitale".

Gauza larriak ikusten diren arren, zure buruarekin gustora egoteko moduko lana da. Besteei borondatez eskainitako laguntzak poz handia ematen baitu. Beraz, badakizu, laguntzeko prest bazaude deitu DYako telefonora. Hilabetearen arratsalde bat eskain dezakezula? Ba, hori ezer baino gehiago bada. Animatu!

Amagoia Mujika

Jose Luis Artola "14 urte hauetan denetik ikusi dut"

Asko dira konta ditzake-danak, 14 urte hauetan bizipen asko izan baitituz. Azpimarratzekotan, behin Aginaga aldean gertaturiko istripu bat dut gogoan. Istripu larria izan zen eta gidaria auto barruan gelditu zen ezin atera. Ateratzera joan ginenean, autoak su hartu zuen eta ezin genuen ezer egin. Momentu benetan latza izan zen, gidariak gure aurrean bizia galdu zuen eta ezin izan genuen ezer egin.

Beste behin Oria ibaitik hildako gopu bat atera nuen eta usaina barruraino sartu zitzaiz-


dan hiru egunetan. Garbitu arren, buruan nuen usaina eta ez zen batere atsegina izan.

Momentu barregarriagoak ere izan dira tartean. Behin istripu bat izan zen Orioko bidean eta autoa amildegibatean behera erori zen. Gidaria bidera igo genuenean, zauri larririk ez zuen arren, ospitalera eramatea erabaki genuen. Bera, berriz, egoskor antzera jarri zen; zapata bat falta zizaiola eta zapatarik gabe ez zela inora joango. Azkenean amildegira jeitsi izan behar genuen autoan geldituta zapataren bila.

Orohar bada azpimarratu nahiko nukeen gauza bat: euskaldun eta erdalduen arteko ezberdintasuna. Kultura ezberdinak dira oso, batzuk edozer txorakeriarekin etortzen zaizkigu, besteei, berriz, asko kostatzen zaie guri laguntza eskatzea. Gogoan dut hor goiko baserri batean bizi den baserriar baten kasua: zauri txiki bat zuela eta emazteak bidali zuela eta...bera bakarrik jaitsi zen gure egoitzara. Begiratu genuenean behatza zintzilik zuen. Euskaldunak burugogoragoak dira eta oso larri behar dute guregana etortzeko.



Amagoia Mujika



- 21 urte
- Kazetaritzako ikaslea
- Noaua! Kultur Elkarteko dinamizatzailea

Lotsagabeki begira

Ez zait metroan ibiltzea gustatzen. Inork inor ezagutzen ez duen espazio horretan, inguruko guztiei begira jartzen bainaiz lotsagabeki. Bapatean, modu berean begira dagoen beste begirada batekin gurutzatu eta batek egunkaria alderantziz begiratzen duen bitartean, besteak hutsik daukan eskumuturrari begiratzen dio, ordua jakin nahian edo.

Mota guztietako jendea elkar-tzen da metroan, baita mota guztietako usainak ere. Dotore-dotore, ia dotoreegi doan emakumeak guztiak zorabiatu gaitu bere perfume garestiarekin. Garestia izateak ez du zertan ona izango dela ziurtatzen, ez horixe!

Lasai exerita noa ni eta pixkanaka-pixkanaka, geltokiz geltoki, bagoi hau betetzen ari da. Espero bezala, laister hurbildu da nire eserlekura edadeko gizon bat. Eztulka hasi da eta segituan ulertu dut eztularentzako karamelo bat baino, eserlekua libre uztea nahi zuela. Hala ere eserita jarraitu dut, "eztularen mezua" ulertuko ez banu bezala. Agian hitzez eskatuko balit...

Parean daukadan neskatxak ere ez dio jaramon egin aitona-ren eztulari eta eserita jarraitu du, bidaia guztian bezala, niri begira-begira. Lotsagabeki begiratu arren, ez du egunkaria edo erlojua begiratu nire begirada topatu duenean. Zein adinetan erakusten dizkigute, ba, metroko arauak? Oraindik ez al daki neskatxa honek ez dela horrela begiratu behar? Oraindik ez al

daki edadeko jendeari esertzen utzi behar zaiola? Inbiria pixka bat ere eman dit, adinaren aitzakian lizentzia asko baititu.

Metro batean falta ezinezko pertsonaia agertu da geltoki honetan: erosketa poltsekin kargatuta datorren etxeandrea. Burukoaren ohiko aztarna daraburua, orraztu arren tapa ezin daitekeen zuloa ilean. Ziurrenik oraindik ez du ileapaindegian asteroko zita izan. Galtzerdiak belauneraino eta gona goraxea-go. Goma horren estutasuna ez da oso ona izango zirkulaziorako. Libre geratu den aulkia laster asko harrapatu du honek, aitona ez tulka jarraitu arren. Bapatean, egun oso ezaguna den segapotoaren doinuak hartu du bagoi guztia. Begiradak hara eta hona hasi dira, guztiak telefonoa nork aterako duen asmatu nahian. Etxekoandreak eskua gabardinaren poltsikoan sartu du eta zur eta lur geratu naiz. Ez ote du segapotoa berea izango? Miatu eta miatu, poltsikoarekin borrokan dabil bilatzen duen hori ezin aurkitu.

Ditxosozko telekomunikazioak nagusi hemen ere. Gaur egun telefono mugikorrek finkoak baino gehiago dira eta fenomeno hau gorantz omen doa eten-gabe.

Azkenean, etxeandreak topatu du topatu beharrekoa. Eskua poltsikotik atera eta nire lasaitasunerako, segapotoa beharrean erregaliz beltza atera du. Irrifan egin diot eta baita berak ere. Ez gaude hain galduta. On egin andere!

Xinkildegia

Lentzeria,
gizonezkoentzat arropa,
haurren jantziak,
etxerako behar dituzunak

Aritzeta 1 behean,
20170 Usurbil ☎ 943 36 17 87

Jar ezazu hemen
zure publizitatea
Telf; 943 36 03 21



ARRAINDEGIA
PELLO



Arizeta Kalea, 1
Tlf 36 21 64
USURBIL



Bertsoak

1993. urtean XVII. Santixabel bertso paper lehiaketa antolatzen zuten Bota Punttuba bertso taldeak jaien egitarauaren barnean. Aukeraturiko gaia "Usurbilgo ikastolaren XXV: urteurrena" izan zen eta garailea, berriz, Arantzazu Aranburu. Hona lehen postua eskuratu zuten bertsoak.

Egin dezadan Ikastolaren
sorreraz aipamena
Hezkuntza mailan urrats haundiko
gertaera izan zena.
Urrats bikoitza ze, biek zuten
heuren zeina ta izena.
Ta horra aurten hauen hogeita
boskarren urteurrena.
Luberri eta Udarregiri
eskerron eta omena

"Paris" etxeak ikusi zuen
Luberri bere jaiotzan
eta babesa aurkitu zuen
ofizialki elizan.
Patronatoa legeztatu zen
udalaren segurantzian.
Ta Udarregi izen jatorrez
bataiatua izan zan
gure herriko hain bertsolari
sonatuaren gorantzian.

Eta Luberri hasi zitzaigun
bere fruituak erditzen
Andereño ta haurrak zituen
geroz ta gehiago biltzen.
Bainan orduko legeak zuen
arazoetan murgiltzen
hargatik Lander eta Luberri
hasiak zeuden hurbiltzen
ta, Landaberri kooperatiba
biak batuz eraiki zen.

Ta Udarregin bi ikastetxe
ditugu aipatzekoak:
bat Kalezarren, han mojak ziren
ta bestean, Hermanoak.
Mojetan neskak ibiltzen ziren
Hermanotan mutikoak.
Ikastetxeok bateratzeko
hartu zituzten asmoak
ta garaipena iritxi zuen
horrela hezkuntz mixtoak.

Hezkuntz mixtoa lortua zuen
bainan, euskalduntzea?
Euskal hezkuntza garai honetan
hain zaila zen pentsatzea!
Erabaki zen hasteko behintzat
euskal klaseak jartzea
ta pixkanaka bere burua
giro horretan sartzeta
Udarregiren ametsa baitzen
Ikastola bihurtzea.

Hirurogeita hamasei eta
hamazazpigarrenean
bai Udarregi bai ikastola
batzen dira azkenean.
Hainbat gatazka, hainbat arazo
gertatu zen aurrenean
bainan guztiak gainditu ziren
ta Udarregi behinenean
gorpuzten doa eta sendotzen
hazten dihoan heinean

Ikastola-re zaharra zegoen
ta hara berria eraiki.
Majinatxo bat saiatur da
lana eginez prestuki.
Esan liteke omenaldi bat
askok dutela merezi.
Txalo guraso, irakasleei
ta gainera bereziki
txalo bero bat ikasle denei
ikasle ohiei goraintzi.

Ikastolentzat urte guztiak
ez dira izan erosoak
azken garai hauk ere ez dira
ez txantxa eta ez gozoak.
Beldurtzen gaitu, jipoitzen gaitu
laino beltzen erasoak
kilin-kolonka egiten dute
lokatz gaineko pausoak.
Zeru oskarbi baten ametsa
bizi du herri osoak.

Lehiaketa



Nola du izena baserri honek?

Asmatzaileen artean Antxeta jatetxean bi pertsonentzako afaria zozketatuko dugu.

Aurreko alean galdera xelebrea egin genuen. Sagardo eguneko kartelarekin herrian sortu zen jakin nahia ikusita, bertan agertzen zena nor zen argitzea ezinbestekoa iruditu zitzaigun, eta lehiaketaren bidez egitea erabaki genuen. Iñigo Urkijo da argazkikoa eta lehiaketaren irabazlea berriz Andres Iribar. Zorionak!

EKAINAK 2 ostirala

- 18:00etan Udaregi ikastolako 5 urteko eta **Lehen Hezkuntzako 5.mailako haurren kontzertua** elizan.

EKAINAK 3 larunbata

- *Agilitiko txakur lehiaketa internazionala* Oiardo kiroldegaren aurrean. Goizeko 11.00etatik aurrera.
- "Plis plas txalo ta jolas" egitarauaren barruan "**Pantxikaren atlasa**" ipuin kontaketa Santueneako eskola txikian arratsaldeko 17.00etan hasita. Ondoren merienda.

EKAINAK 4 igandea

- **Udarregi ikastolaren eguna**
9.00etan txistulariekin esna-deia.
9.00etatik 11.30etara LH eta DBHko ikasleen jokuak.
11.00-13.00etara HHa, LHa eta DBH-ko ikasleen eskulanen

erakusketa ikastola berriko teknologia, laborategi eta musika geletan.
12.00etatik-13.00etara HHko haurren "Kontu kontari kanta-kantari" amandialdia.
14.00etan Herri bazkaria frontoian. Ondoren trikitilariak.

- **Agilitiko txakur lehiaketa internazionala** Oiardo kiroldegaren aurrean. Goizeko 9.00etatik aurrera.

EKAINAK 10 larunbata

- Rock kontzertua **Doctor Deseo eta Zea Mays** taldeen eskutik. Herriko frontoian gaueko 23.00etan hasita.

EKAINAK 13 asteartea

- Arrantzalaren heriotzaren 10. urteurreneko egitarauaren barnean **mahaingurua** Udaregi zaharreko aretoan.
Gaia: "Euskal selekzioa". Par-taideak: Martxel Toledo (ESAIT) eta herriko kirolari pro-


fesionalak. Arratsaldeko 20.00etan.

OHARRAK

- ✎ **Galtzaraginan dagoen taberna saldu nahi nuke.** Interesatuok deitu 943 36 45 98 telefonora (gauean deitu mesedez).
- ✎ Udaregi ikastola aldean **norbaitek giltza batzuk aurkitu baldin baditu** deitu telefono honetara mesedez: 649 322873
- ✎ **Bigarren eskuko irratikasetak, telebistak...behar dira,** ahal izanez gero modu onean. Telf. 943 37 18 80 (Ander)
- ✎ **Emakume bat behar dugu** neskak bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Telf. 943 37 02 89
- ✎ **Giltza batzuk galdu dira** Agerialdeko errotonda inguruan. Aurkitu dituenak dei dezala 943 37 06 67 telefonora.

**EKAINAREN 10EAN
KONTZERTUA USURBILEN**

**DOCTOR DESEO
ZEA MAYS**



LEKUA: FRONTOIAN
ORDUA: 23:00etan
SARRERA: AURRERAK 1000, BERTAN 1200

sarrerak salgai; donostian, bertan eta auzoetan, eta bodega, irratz berria, hop, orio, tolan, txiki, zuzenak, musika eta abar. sarri: xirimiri, usurbil, txiriboga, aitzaga, benta eta txurri.

**Antolatzaileak: Usurbilgo Tabernarien Elkarte
Noaua Kultur Elkarte
Babeslea: Usurbilgo udala**

Doctor Deseo eta Zea Mays

Herriko frontoian gaueko 23.00etatik aurrera

Sarrerak Txiriboga, Aitzaga, Benta eta Txurruen salgai

Aurretik 1000 pezeta, bertan 1200

ZUMETA MENUAK (Gutxienez 2 lagunentzat)

- Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattarraz.
- Itsaski entsalada hozbero trufa zaporez.
- Zapoa txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, onddo eta piliko piperraz haragi saltsetan.
- Etxeko azkenburuko dastapena
- Ogia eta kafea 3.675 pzta. (pertsoneko)



Txoko alde, Tel.: 36 27 13

TABERNA-JATETXEA



ANTXETA

EGUZKITZA, 4
20.170 USURBIL

TEL: 943 37 03 44

Euriak ez zuen 2000ko bazkide argazkia ateratzea eragotzi



Aurtengo beka *Senideak eta Amnistiaren Aldeko Batzordearentzat* izango da

Usurbilgo bi talde hauek elkarlanean aurkeztu duten beka deialdirako proiektuari ondo iritzi dio Noaua!ko epaimahaiak. Bi talde hauek "*Usurbilgo azken 25 urteotako memoria errepresiboa*" bildu nahi dute eta horixe da gure beka deialdira aurkeztu duten egitasmoa. Izan ere, *Senideak eta Amnistiaren Aldeko Batzordearen* iritiz, Euskal herriak ezagutzen duen gatazka politikoak gure herrian makina arrasto utzi du. Hala,

belaunaldi gazteek jakin dezaten eta zaharragoek gogora ekar dezaten egin nahi dute bilduma hau. Azken finean, "*oroitzea baita antzeko izugarrikeriak berriro ez gertatzeko bide eraginkorretariko bat*".

Bestetik, 98an Ziortza taldeak herriko baserrien azterketa martxan jarri zuen gure elkarteak emandako bekari esker. Lan hau erdibidean gelditu zela eta, aurtengoan Josu Tellabidek eutsiko dio

Etxez etxe Noaua!ko bazkideak eginez



Oraindik ez dakizuela nor den? Baduzue, ba, ikasteko garaia. Aintzane Aizpurua gure etxez etxe bazkideza kanpainarekin dabil duela hilabete inguru. Lasai, zuenera ere iritsiko da eta! Beraz, badakizue, **ZUEN ETXEKO ATEA IREKI AINTZANERI ETA NOAUA!ri.**

Egin zaitetz bazkide!

UDARAKO GOIZAK ETA ARRATSALDEAK ONDO PASATZEKO...

UDAJOLAS 2000 USURBIL

ORDUTEGIAK

Goizez; 9:30- 13:00

Arratsaldez; 16:00- 19:30



UDAJOLAS

UDA TXIKI (4-5) urte

adin honetara egokitutako ekintza

UDA ERDI (6-7) urte

egunero joku ezberdin bat:

*espaziora bidaia, munduari itzulia,
asterix eta obelix...*

UDA GAZTE (8-11) urte

eskurtsio bat

bizikletan ibili

eskalatu

UDA JOKU (12 urte)

egunero abentura ezberdin bat

TXANDAK

1goa Uztailaren 3tik- 14ra

2.a Uztailaren 17tik- 29ra

3.a Abuztuaren 1tik- 14ra

4.a Abuztuaren 16tik- 29ra



IZENA EMAN NAHI BADUZU , DEITU TELEFONO HONETARA:

943 37 32 95 arratsaldez

**Zaintzaileak
pedagogoak
izango dira**

